

noaua

**Zubieta, Urdaiaga eta
Atxegaldeko jaien egitarauak**

**NOAUA!ko bazkide izateak
saria dakar**

**Oporretara goaz. Datorren
NOAUA! irailaren 6an
plazaratuko dugu**



Maria Fernanda Carazas Huayanca judoka gaztea

“Europar exijentzia maila oso handia da”



Israel & Grecia

TALDE BIDAIA
Irteera 2019ko irailean
 Lasarte-Oriatik, NOAOAk gidatua

NOAOA
 BIDAIAK

943 37 36 13 info@noaoa.eus noaoa.eus



FUNERARIA GONZALEZ
 EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
 HERIOTZA GERTATZEN BADA,
 DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
 (edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakera.

Begiraleekin antolatutako jarduerak

657 794 677 www.begi-bistan.com
info@begi-bistan.com

ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGI ZUZENA 2019
(ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

UZTAILAK	>>>>	14, 28
ABUZTUAK	>>>>	11, 25
IRAILAK	>>>>>	8, 22
URRIAK	>>>>>	6, 20
AZAROAK	>>>>>	3, 17
ABENDUAK	>>>	1, 15, 29



Albisteak iruditan

Abuztuaren 29an ospatuko dute baba beltz txikiaren kofradiaren eguna

Baba beltz txikiari urtero gorazarre egiten dion kofradia abuztuko azken ostegunean, hilaren 29an bilduko da bazkaritarako 14:00etan Saizar sagardotegian. Kofradekide berri bat izendatuko dute jaialdian zehar. Otorduan berriz, baba beltz txikia eta isatsa saltsan dastatu ahalko da, postrea eta edariarekin batera.

Saizar sagardotegian

Izena aurrez eman beharko da Saizar sagardotegira deituta: 943 364 597
sidrassaizar.com



Izena eman behar da aldeztu aurretik, Saizar Sagardotegira deituta.

Laburrean

1955ean jaiotakoen kinto eguna

Urriaren 19an ospatuko dute bere eguna 1955ean jaiotakoek. "Egun pasa egin-go dugu, Gezaltza-Añanako gatz arana, Nerbioiko ur jauzia eta Urduña ikustatuz. Jakinaren gainean izateko. Izena irailean eman beharko da".

1979an jaiotakoen kinto bazkaria

"Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula". Garai berekoa izan eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

1958an jaiotakoen bazkaria

Irailaren 7an larunbata bilduko dira bazkaritarako Antxetan. Izen-emate epea: abuztuak 30 baino lehen. Izena emateko 50 euroko ordainketa egin, Laboral Kutxaren ES 86 3035 0140 3814 0003 2040 kontuan. Norbere izen abizenak adierazi.

noaia

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaia.eus ||| www.noaia.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Jon Galbete.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Itxaso Orbegoza

Ezin etxetik kanpo jan

Egungo garaietan elikadura geroz eta anitzagoa izanik, jatetxeek ezinbestean aukera sorta zabaltzea beste aukerarik ez dute. Glutenik gabeko janaria, behi esnea laktosarik gabea, fruitu lehorrik gabeko entsalada eta postreak... Karta geroz eta zabalagoak eta aldi berean murriztagoak ditugu. Glutenik jan ezin duenak otartekorik ezin du eskatu, ez eta postreen kartatik ia ezer ere. Laktosak kalte egiten dietenek ezin dute esnekirik hartu, eta beraz, gazta duten entsaladak eta postreak erabat mugatuta dituzte. Badaude beste zenbait, ni tarteko, animaliekiko errespetuagatik haien haragirik jaten ez dugunak. Baita beste zenbait ere, animalia jatorriko ezer jaten ez dutenak ere. Animaliak torturatu eta hilda negozioa egiten duen industriaren aurkako geroz eta gehiago gaude.

Zailtasun ugari izaten ditugu barazkijaleok kanpoan jan behar dugun bakoitzean. Lehen plateretan, entsalada eta tortila patata bokadiloa izaten dugu; bigarren platera gehienetan zerbait aparteko edo berezia eskatu behar de-

netariko haragi eta arrainak zerrendan guretzat ezer izaten ez delako. Postrea iritsi zain egon behar beti. Beganoen kasuan hori ere ez. Puntu honetara iritsita eskerrak eman beharrean nago Usurbilgo Jai Batzordeari, nire beharretara egokitutako menua prestatzeagatik inolako arazorik jarri gabe. Entsalada, barazki nahaspila, hamburgerak eta postrea. Ezin gehiago eskatu. Denen beharretara egokitutako menuak prestatzeko prestutasuna eskertzen dugu barazkijaleok, bai intolerantziak dituztenak ere. Herriko jatetxe batzuetako menu beganoak ere gogora ekarri nahi nituzke. Ez dute inolako inbidiarik ematen txuleta eta bakailao tortilak halako jaki gozoak janda. Orojalea banintz ere, beganora joko nuke zenbaitetan. Ezinhobeia.

Jatetxeetan gauzak pixkanaka aldatzen badoaz ere, Usurbilen denontzat aukera zabalagoak beharko lirateke. Geroz eta barazkijale eta begano gehiago gara. Azken urteetan gora egin du barazkietan oinarritutako dietak egiten dituztenen kopuruak eta hori tabernetan islatu beharra dago. Aparte jaten ematekoak dirudigu oraindik ere barazki-

jaleok, beti aukera berdina egitera behartuta. Lehenengo entsalada bat, ondoren espreski prestatutako txanpinoi nahaskia edo, eta gero postrea. Ez da beste aukerarik. Nire lagun taldean ez da erraza kanpoan jatea, barazkijale bat eta zeliaka bat ditugu. Festetan azkar batean jateko bokadiloak eskatu behar direnean esaterako, nik tortila patata jan behar, eta lagunak dena delakoa baina plateretan: ogirik gabe. Argaltzeko edota muskuluak indartzeko dieta bereziak egiten dituztenak ere beti izaten dira talde guztietan. Arroza eta oilaskoa baino jan ezin dituen edo entsalada bat besterik jan nahi ez duena. Gurean horrelako muturreko dieta daramanik ez daukagu orain momentuan, baina tira. Horren zaila al da glutenik gabeko ogiak aukeran ematea, laktosarik gabeko esnea edo animalia jatorria ez duena edo haragi eta arrainik ez duten milaka milaka errezetatik baten batzuk aukeran jartzea?

Beldurrez joan behar dugu oraindik ere lagunak batek galdetzean: "Zer gaur kanpoan afalduko dugu?". Betikoa jateko prestatu behar. Behin bigarren plateretan aukerarik ez

dagoela ikusita, apartekoak eskatzen hasi behar. Beste planeta batetik etorritako estralurtarrak bagina bezala. Azalpenak eman behar beti. Munduan dozenaka kultura barazkijale daude, eta beraz, milaka errejeta. Ohiko argudioa izan ohi da zaila dela barazki eta zerealetan oinarritutako jakiak prestatzea. Neurri handi batean euskaldunon jateko ohituran haragi eta arrain freskoa ia platera guztien izarrak dira, baina haratago begiratzen ikasi behar dugu. Asiako herrialde askotan biztanleriaren gehiengoak barazkijalea da eta horrek ez du oztopatzen gastronomia zabal eta oparoa izatea. Lurrak ematen dizkigun hainbat produktu erabili ere ez ditugu egiten; batzuetan ezagutu ere egiten ez ditugulako eta besteetan erosokeriaren ondorioz. Supermerkatuak ezezagunak zaizkigun fruta, barazki eta zerealez beteta daude eta egun, horiek prestatzeko milaka errejeta daude interneten. Orduan ba al dago benetako arazorik taberna eta jatetxeen eskaintzak zabaltzeko? Utzikieriaz gain, esan nahi dut...

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegoza | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Kale Nagusiarekiko loturak estutzen

Kaleko bizitza eta herri merkataritza banaezinak diren binomio bereko ki-deak ditugu. Batak ezin biziraun bestea gabe. Usurbilen herri merkataritza sustatze aldera, espazio publikoa aktibatze hainbat egitasmo burutu ditu Udalak azken urteotan, Guztion Eskualdea Beterri-Buruntzako udalek bultzaturiko proiektu zabalagoaren baitan.

Ekintza gehiago iragarri eta gauzatzen hasia da Udala egunotan. Batetik, Askatasuna plaza Kale Nagusiarekin lotzen duen 10 zenbakiko pasabidean hobekuntza lanak hasi zituzten aste hasieran. Inguru horretan ibili bazineten, horregatik aurkitu zenuten itxita. Kale Nagusirako lotura bermatu nahi du Udalak, erraztu eta egun ilun samarra den pasabidea bera erakargarri bilakatu. Udalak asteotan bideratuko dituzten lanen berri eman dio NOAUA!ri. “Egoera kaskarrean den pasabideko sabaia berri egingo da. Argiztapen berria jarriko da, sabai berrian sartutako luminarien bitartez. Egun duen kolore



Olanoenean ere berrikuntzak egingo dira datozen asteetan.

Kale Nagusia eta Askatasuna plaza lotzen dituen pasabidea egoera kaskarrean da. Sabaia berri egingo da eta argiztapena hobetuko du Udalak

iluna ordezkatu eta pasabidea osatzen duten horma, sabai eta zutabeak zuriz margotuko dira. Horretarako hormetan egun dauden azulejuak kendu eta zarpiatuko dira, ondoren margotu ahal izateko. Eraikinen behe solairua eta azpiko garajeen artean inpermeabilizaziorik ez dela eta, udal-lan-

gileentzat pasabidea garbitu eta mantenu lanak egiteko oztopo da, garajeetara ura filtratzen baita. Horri konponbidea emateko, egungo zoladuraren gainean mekratilatozko zoladura iragazkaitz bat jarriko da”.

Aipatu lanok tarteko, aste hasieran itxita egon da Askatasuna plaza aldetik Kale Nagusirako pasabidea. Honez gero zabalik egon behar du berri. Udalak ohartarazi duenez, “uztailaren 22tik uztailaren 30era gainontzeko lanak burutuko dira, baina epe honetan beti ere pasabideko igarotzea bermaturik egongo da”.

Ekintzaileentzako diru-laguntza deiak Hasiz Hazi

Kabiene Elkarlan Gunean urtebeteko egonaldia egitea ahalbidetzen duen beka deialdirako eskabideak irailaren 30era arte aurkeztu ditzakete udal-etxean, Beterri Buruntzako udalerrien batean erroldatuak dauden ekintzaileek.

Lokal hutsak

Lokal hutsak negozio berri batekin biziberritu nahi dutenentzat Usurbilgo Udalaren diru-laguntza deialdira aurkeztu daitezke, irailaren 30era arte. Laguntza lerro hau, negozio horretako lokalaren alokairura bideratua dago.

Ekainean, langabetu kopurua beherantz

214 langabetu zenbatu ziren Usurbilen. Ohi bezala, emakumezko langabetu gehiago erregistratu zen, 123 guztira. Gizonezko gehiago kontratu zen (201) emakumezkoak baino (196).

Altzariak Olanoenean

Potxoenea ondoko Olanoeneko plazatxo edo anfiteatroaren erabilera bultzatzeko, aipatu kultur etxeko estetikari jarraiki, bere parean haur eta helduentzako mahai eta eserleku finkoak jarriko ditu Udalak. Eta anfiteatroan bertan, egurrezko gunea baita lasai ederrean egoteke. Hilabeteotan ikusi ahalko

duzue guneak duen itxuraldaketa eboluzioa.

Ekintzokina Askatasuna plazatik Kale Nagusirako oinezkoentzako egokitu eta erakargarri bihurtu nahi du Udalak, “herrirako sarrerako gune erreferenteetako bat bihurtzeko”. Bertako merkataritzari mesede egin eta herritar

desberdinen arteko harremanak sustatzeko modu anitzetan erabili ahalko diren espazio inklusibo eta atseginak sortzeko baliabideak eskaini nahi dira. “Usurbilgo Merkataritza Biziberritzeko Planaren baitan merkataritza eremuan hiri ingurunea eta kale-merkataritza indartzeko azken

urteetan egindako hirigintza lanen jarraipen bat ere bada”. Mikel Laboa plazaren bueltan eginiko hobekuntza lanak dira horren adibide: plaza bera oinezkoentzako egokitu, bertaratzeko oinezkoen pasabideak hobetu, eta bertatik Kale Nagusira jaisteko kaleak eraberritu ditu Udalak azken urteotan.

ARRANDEGIA PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91 USURBIL

ORDUTEGI ETA TELEFONO BERRIA!
EGIN ZURE ESKAERA WhatsApp-ETIK!

Patxi
bazkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

“Europar exijentzia maila oso handia da”

Maria Fernanda Carazas Huayanca usurbildarra judoan Espainiako onenen artean da. Europako txapelketetan ere parte hartu du eta Espainiako selekzioarekin ere aritzen da. 18 urte besterik ez dituen arren, kolore guztietako dominak lortu ditu maila ugarietan eta datozen urteetarako helburu berriekin dator. NOAUA! berarekin izan da urte hauetako ibilbidea jarraitzeko.

NOAUA! Espainiako txapelketa izan zara aurten 21 urtez azpiko mailan. Kontaiguzu nola joan zen txapelketa.

Mafer Carazas. Gure azken hirugarren txapelketa izan da junior mailan. Lesio bat izan nuen aurretik, ukalondoa aterata eta errehabilitazioa egin behar izan nuen txapelketa aurretik. Sentsazio onekin iritsi nintzen bertara, baina final-laurdenetan zuntz-eten-dura izan nuen eta medikuak ez jarraitzeko esan zidan. Aurrera jarraitzea erabaki nuen, ordea, mugimendu asko egiteko zailtasunekin eta ikuspuntu teknikitik hainbat arazorekin. Azkenean irabaztea lortu nuen, ordura arte eginiko lana borobildu nahi nuen eta azken esfortzu hori eginda lortu nuen garaipena azken segunduetan. Esteban eta biok Espainia mailako hirugarren urrezko domina lortu genuen.

Cacereseko Super Kopa ere ira-



Mafer Carazas Oiana Blancorekin hasi zen judoan entrenatzen baina “hamar urte daramatzat Esteban Arrillagarekin”.

MAFER CARAZAS

“Hona iritsi nintzenean karate egin nahi nuen, Perun ere hala egiten nuelako. Judon izena eman nuen karatea zelakoan eta hasi nintzenean berehala ohartu nintzen ez zela karatea, baina gustatu egin zitzaidan”

bazi zenuen eta Europar ere aritu zara azken denboraldietan. Nola iritsi zara horraino? Hirugarren urtez hartu dugu parte Super Kopan eta lehen postua irabazten dutenek lortu ohi duten moduan, urdaiazpiko banarekin itzuli ginen etxera Esteban eta ni, aurreko beste

bi aldietan bezala. Portugalen Europako mailan aritu gara eta bertan, lepaustuata atera nuen eta ebakuntzaren zain egon behar izan genuen. Errehabilitazioan eman nuen hila eta gero, Irati Ibargoiaren fisioterapeutarekin aritu nintzen. Malagara joan ginen behin osatu nintzenean. Europa eta Espainiako mailak oso ezberdinak dira. Europar exijentzia maila oso handia da. Elikadura zaindu behar da, deskantsatzeak izugarritzko garrantzia hartzen du eta entrenamendu asko egin behar dira. Azken finean, nire adineko edozein pertsonaren bizitza hori ezin dut eraman: parranda bota, hondartzara joan eguzkia ateratzen den aldiro... Malagako finalerdietan kanporatu egin gintuen

errusiar batek, estrategia txar bat medio. Zazpigarren postua erdietsi genuen azkenean. Europar aritzen ginen hirugarren aldia genuen Estebanekin eta nik, Espainiako nazionalitate lortu aurretik ezin bainuen parte hartu.

Maila horretara iristeko bidea nolakoa izan da?

Bederatzi urterekin hasi nintzen judoan. Espainiara iritsi nintzenean karate egin nahi nuen, Perun ere hala egiten nuelako. Judon izena eman nuen karatea zelakoan eta hasi nintzenean berehala ohartu nintzen ez zela karatea, baina gustatu zitzaidan.

Oiana Blancorekin hasi nintzen eta orain hamar urte daramatzat Estebanekin.



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



Otar-Goxo
Elikagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ETXETRESNEN

KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

☎ 645417665

XABIER Usurbil



“Atzerriko jende asko ezagutzen ari naiz”

NOAUA! Esteban Arrillagak urteak daramatza Usurbilgo Judo Taldean. Zure entrena-tzailea ere izan da. Zer nolako garrantzia izan du zure ibilbi-dean?

Mafer Carazas. Esteban eta nire artean oso erlazio berezia dago. Ez gara entrenatzaile eta judoka bakarrik, Esteban ia nire aita bezala da. Nire bizitza pertsonalean garrantzia handia du.

Usurbilgo Judo Taldeak domina asko irabazi ditu azken urteetan. Euskal herriko talde onenetako batean zaudela esan al daiteke?

Aiora Arrillagarekin entrena-tzen dut orain. 2013an hasi nintzen Espainiako txapelketetan parte hartzen eta ordu-rako Europan eta nazioarteko mailan parte hartzen ikusten nuen Aiora. Beti bidaiatzen ibiltzen zen eta dominekin itzultzen zen etxera, nik ere hori nahi nuela erabaki nuen. Aholku asko ematen dizkit eta janariarekin laguntzen dit. Orokorrean, Euskadi mailan klub potenteenetakoa gara eta domina gehien ditugu ia maila



“Kirol hauetan ezin da beti irabazi eta diziplina handia behar da”, Mafer Carazasek aitortu digunez. “Buruaren lanketak garrantzia handia du horretan guztian”.

MAFER CARAZAS

“Euskadi mailan klub potenteenetakoa gara eta domina gehien ditugu ia maila guztietan”

guztietan.

Psikologia ikasten ari zara. Zuk uste kirolean alderdi fisi-

koaz gain, burua lantzea ere beharrezkoa dela?

Aiora Arrillagak bultzatu ninduen psikologia ikastera. Kirol psikologian espezializatuta dago eta ni nola laguntzen nauen ikusita erabaki nuen nik ere horixe egin nahi nuela. Kirol hauetan ezin da beti irabazi eta diziplina handia behar da. Buruaren lanketak garrantzia handia du horretan guztian.

Kirolak asko bidaiatzeko aukera eskaintzen du, ezta?

Espainiako selekzioarekin leku dezentetan izan naiz eta atzerriko jende asko ezagutu dut: errusiarak, georgiarrak, italiarrak... Europako hainbat lekutan izan gara; Kroazian eta Italian, esaterako. Oso judo mota ezberdinak ikusteko aukera eman digu horrek, estrategia eta teknika asko. Oso aberasgarria da.

“Datorren urtean lehen domina eskuratzea gustatuko litzaidake Europako Txapelketan”

NOAUA! Zeintzuk dira zure helburuak epe motzean? Eta epe luzean?

Mafer Carazas. Datorren urtean tokatzen zaizkigu Espainiako Junior eta Senior Txapelketak eta Europako txapelketara joan eta lehen domina eskuratzea gustatuko litzaiduke. Munduko txapelketara ere joan nahi dugu Bahametara. Udarako prestaketa plan bat egin daukagu helburu horiek lortu ahal izateko.



“Udarako prestaketa plan bat egin daukagu helburu horiek lortu ahal izateko”.

NOAUA!ko bazkide izateak saria dakar



Jokin Eizagirre, Maria Lourdes Pagola, Saioa Fernandez (argazkietan, hurrenez hurren) eta Eunat Artola izan dira azken zozketetan sarituak izan diren bazkideak.

Aurreko astean iragarri genuen bezala, laster oporretara goaz. Eskuartean duzun NOAUA! izango da udako oporren aurreko azken zenbakia.

Irailaren 6an plazaratuko dugu hurrengo astekaria. Ordurako ohar edo zorion agurririk baduzue, irailaren 2a baino lehen helarazi emailaz, erredakzioa@noaia.eus, edo telefonoz bestela: 943 360 321.

Bazkidetza kobraketa

NOAUA! K.E.-ko bazkideentzako oharra. Urtero moduan, uztailaren 15ean hasi ginen bazkidetza kobratzen banku bidez, hala egiteko baimena eman zenigutenok. Bestela NOAUA!ren kontuan egin beharko duzue ordainketa edo bulegora etorri. Azken urtean, zuen datu pertsonaletan aldaketarik izan baduzue ahalik eta lasterren jakinaraztea eskertuko genizueke. Argibide

gehiagorako: 943 360 321 edo elkartea@noaia.eus

Bazkideen txokoa

Milesker beste behin, proiektu hau babesten duzuen guztioi. Tartean noski bazkideoi. NOAUA! kide izatea saritu nahi izaten dugu. Besteak beste, herrian antolatzen diren ekitaldietako sarrerak zozketatuz. Udaberri parte honetan ere Jexux Artzeren omenez antolatuturiko ziklorako zenbait sarre-

ra zozketatu genituen. Hemen sarituak:

■ M. Lourdes Pagola Aizpurua. "Soinujolearen semea" filma ikusteko bi sarrera.

■ Saioa Fernandez Iribar. "Lau sasua" kontzerturako bi sarrera.

■ Eunat Artola Malangre. "Zoaz pake santuan" antzezlan ikusteko bi sarrera.

■ Jokin Eizagirre Sagardia. "H Artzetik, poesia musu zapian" emanaldirako bi sarrera.

Mintzalagunekoak Zumeta Arte Estudioan

Euskara ahotan hartzea modu ezin praktikoagoan sustatzen duen Mintzalagun egitasmoaren ikasturtea borobiltzeko, ekainean txangoa antolatu zuten Zumeta Arte Estudioan.

Etumeta AEK euskaltegiak, Usurbilgo Udalak eta NOAUA! K.E.-k bultzaturiko ekimenak ez du etenik urte osoan. Eki-menak euskara ikasten aritu edota dakitenak behar ditu. Batzuen eta besteen arteko aseteroko solasaldietan oinarritzen baita Mintzalagun.

Informazio gehiagorako euskaltegian edota NOAUA!n bertan.



Mintzalagunekoak, Usoa Zumetarekin batera. Argazkia: Lurdes Hueta.



SANTIOAK
2019
gehigarri berezia

Zubieta, jai giroan blaitzear



Uztailaren 24an hasiko dira jaiak. Argazkian, 2017ko txupinazoa. Argazkiaren egilea: Ion Markel Saez de Urabain.

Festa usainean dira Zubietan! Egunotan banatzekoa zen Jai Batzordea festen egitaraua. Etkez etxeko banaketarekin Zubieta orain bai, astebeteko parranda giroan murgiltzeko bidean da. Uztailaren 24tik 31ra denetariko hitzorduak programatu dituzte. “Egitarauan ikusten denez, ekintza anitz, parte hartzaile eta ezberdinez beteriko festak datozkigu aurtengoan ere”. Kontzertuak, jan edan dastaketak, haur jolasak, oilasko biltzaileak, kirol hitzorduak... Eta lagun arte ederrean ospatzeko moduko bazkari eta afariak!

Txartelak

Adi hitzorduotarako txartelen salmentari. Festa gunetik mugitu gabe, Zubietako herri jaietan antolatu dituzten otorduetan parte hartzeko lekua aurrez erreserbatu behar da.

Uztailaren 24ko herri afariak Alamandegina eskuratu ahaliko dituzue uztailaren 21a baino lehen; helduenak 25 eurotan, haurrenak 12 euroren truke. “Errespetatu azken eguna mesedez”, eskatu dute antolatzaileek.

Bazkari herrikoa, uztailaren 27an

Uztailaren 27an bazkari herrikoa ospatuko dute Zubietan. Kasu honetan, “kuadrila bakoitza ardura dadila bere

bazkaria ekartzeaz. Jai Batzordeak eskuragarri ipiniko dizkie herritarrei mahaia, aulkiak, mahai-tresnak, platerak eta edalontziak”.

Jubilatuaren bazkaria, uztailaren 28an Barazarren

Hilaren 28ko jubilatuaren eguneko bazkaria ohi bezala, Barazar jatetxean ospatuko da. Uztailaren 24a baino lehen hartu behar da lekua, 639 273 580 (Miriam) telefono zenbakira deituta.

Zikiro-jana uztailaren 31n

Festetako azken eguneko zikiro-janekoak uztailaren 26a baino lehen erosi, hauek ere Alamandegina, helduenak 22 eurotan, haurrenak 12 euroren truke. Jai Batzordeak ohartarazi duenez, “zikiro jatea ospatzeko beharrezkoa izango da 100 lagun elkartzea. Gutxieneko kopuru hori ez badaosatzen, banan-bana jakinaraziko diegu herritarrei ez dela bazkaririk egingo. Animatu eta erosi zure txartela!”.

Bertso txapelketaren sari banaketa, uztailaren 27ko sagardo-dastaketan

“Nola ikusten duzu Zubietan hemendik 20 urtera?” galderari bertsotan erantzunda, Zortzitan Bertso Eskolak antolatu duen txapelketan

parte hartzeko aukera egongo da jaiotan. Zubietako 1. Bertso Txapelketako lanak helarazteko “bertso-kutxak egongo dira herriko taberne-

tan eta txosnan”.

Sari banaketa uztailaren 27ko sagardo-dastaketaren bueltan egingo dela ohartarazi dute.

“Herritar bakoitzak txanda bat egingo balu, guztiok gozatuko genituzke jaiak”

Ekitaldi eskaintza zabalaz gozatzeko aukera izango da abiatzear dituzten Zubietako jaietan, Jai Batzordetik nabarmentzen duten moduan geroz eta herritar gehiago baitira ekimenen bat antolatze-
ra animatzen direnak. “Jaien antolakuntzan geroz eta herritar gehiagoren laguntza dugu, eta zinez eskertuak gaude”.

Eskerrak helarazi nahi dituzte Jai Batzordetik, herritar talde ezberdinei festen antolakuntzan eskainitako laguntzagatik. Zubietako Pilota Elkarteari, “herri afaria antolatzeagatik eta joko garbi zein errebotea, festetan ere, ikusgarri egiteagatik”.



Auzonalaren emaitza dira festak. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

Zortzitan Bertso Eskolari “sagardo dastaketa antolatze-
zako ardura antolatu eta Zubietako bertso-mundura hurbil-

tzeagatik”. Zubietako Guraso Elkarteari, “festetako umeen egunerako eskainitako laguntzagatik”. Guraso talde “bete-

ranoei, urtero-urtero, sardin eta piper jateaz arduratzegatik; eta guraso-talde “berriagoei”, aurtun, herri-olinpiadak antolatzeagatik”.

Jai Batzordearekin harremanetan jartzeko deia

Auzolanaren ispilu dira festak. Abiatzear duten aste nagusian zabalik izango den txosnagunerako laguntza behar dute. “Herritar bakoitzak txanda bat egingo balu, guztiok gozatuko genituzke jaiak! Horregatik, herritarrek txosnako txandak egitera gonbidatu nahi ditugu. Jarri Jai Batzordearekin harremanetan, mesedez, txanda hautatzeko”.



bugati
ERRETERIA

**OILASKOAK IKATZ-BRASAN ERRETERIA
eta UMEENTZAKO JOLASTOKIA**



Arrapide Pasalekua, 74
20160 Zubietako (Donostia)

☎ 943 37 76 62 f Bugati Erreteria

Ondo pasa SANTIOETAN!



TABERNA · PINTXOAK · RAZIOAK · BOKATAK
· HANBURGESAK · JATETXEA · MENUAK
· KARTA · AFARI MUSIKALAK
· OSPAKIZUNAK · EZKONTZAK · BATAIOAK



**UDA GUZTIKO OSTEGUNETAN
PINTXO&MUSIC 1,5€
MUSIKA ZUZENEAN ETA KOKTELEROA**

Berridi Bidea 22, ZUBIETA 943 362 049



Irui Sagardotegia

ONDO PASA SANTIOAK!!

Petritza bidea 12, Zubieta

943.361.229



Lizarralde
ORTOPEDIA

www.lizarraldeortopedia.eus

*Bizi kalitatea
hobetuz*

ALOKAIRUAN:
gurpildun
aulkiak,
ohe
artikulatuak

- Eskailera igogailuen instalazioa
- Komun eta etxebizitzaren egokitzapena
- Diru-laguntzen aholkularitza-tramitazioan laguntza
- Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza
- Zapata eta ortesi gama zabala
- Teknikari ortopeda kontsulta
- Arreta pertsonal eta espezializatua
- Online eta telefono bidezko aholkularitza
- Salmenta ondorengo zerbitzua
- Etxera banaketa

Ondo pasa Santioetan!

Astelehenetik ostiralera: 09:15-13:30 / 16:30 / 19:30
Larunbata: 10:30-13:00

Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583
Kazkazuri plaza 1 - behea 20180 Oiartzun

*Santio jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

BARAZAR
OSTATU-JATETXEA

LOGELAK KOMUNAREKIN
AFARIAK EGUNERO
BAZKARIAK IGANDE ETA
JAIEGUNETAN

943 36 33 58 ARBITZA BIDEA, ZUBIETA

ALAMANDEGI JATETXEA

- Asteazken zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia, familia guztiarentzat aproposa!

Ondo pasa Santioetan!

Tel. 943 36 28 49 egin zure erreserba!
Urbizarte kalea 1, 20160 Zubieta

Zubieta, Gipuzkoako Errebote Txapelketako finalean

Hiru jardunaldiz osaturiko lehen fasea jokatu ostean, Gipuzkoako Errebote Txapelketako finalerako sailkatu da Zubieta. Behar Zana eta Txost izan dituzte lehiakide zubietarrek. Azken neurketa hain zuzen Behar Zanarekin izan zuen Zubietak; 13-3 irabazi zieten villabonarrei etxean. Honenbestez, Zubieta eta Oiartzungo Txost taldeen artekoa izango da Gipuzkoako Errebote Txapelketako final handia. Igande goizera (uztailak 21) iragarria bazegoen ere, larunbat arratsaldera (uztailak 20) aurreratu dute: 17:30ean Zubietan.



Finala larunbat honetan jokatu da Zubietako errebote plazan, arratsaldeko 17:30ean hasita.




ELEKTRIZITATE-ELEKTRONIKA
 FABRIKAZIO MEKANIKOA
 ADMINISTRAZIOA
 ENERGIA ETA URA, INSTALAZIOAK ETA MANTENUA

Usurbilgo Lanbide Eskola

44 URTE PERTSONAK HEZTEN!

www.lhusurbil.eus



Goi eta Erdi Mailako
ZIKLOAK

Lanerako Prestakuntza
IKASTAROAK

Berrakuntza
PROIEKTUAK

...

Ondo pasa Santiotan!



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**
CIFP USURBIL LHII

Zubietako Jai Batzordea: “Aurten herriko hainbat taldek beraien laguntza eskaini digute”

Astebete baino ez da falta Zubietako herrijaiei hasiera emateko. Prestaketa lanak amaitzeaz dira, eta festa giroan murgilduko da hilaren 24an Zubietako eta San Inazio egunean esango diote agur urteroko trakarekin. Zubietako Jai Batzordearekin izan da NOAUA!.

NOAUA! Aurtengo jaietan ez da atsedeen egunik, zortzi egun jarraian ospatuko dira Zubietako herri jaiak. Nolatan hori?

Zubietako Jai Batzordea. Zubietako festetan egun finko batzuk daude: 25 Santio eguna, 26 Oilasko biltzaileak (normalean), 30 gaupasa, 31 San Inazio, beste egun bat umeen eguna, beste bat jubilatuen... Kontuan hartuta asteburuak ezin direla hutsik utzi, aurten horrela tokatu da. Eskertzen dugu atsedeen egunen bat edukitzea, baina aurten horrela izan beharko du.

Zein da Jai Batzordearen egoera? Nahikoa jende ba al zaude te jaiak prestatzeko?

Egia esan aurten nahiko justu gabiltza. Orain arte bilerak egiteko nahiko jende gutxi elkartu gara, baina festetarako gehiago bilduko garela espero dugu. Azken finean, urtean zehar zaila da asteen zehar denok elkartzeko egun bat aurkitzea,



Jai Batzordekoek muntaia lanak hasi beharko dituzte laster. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

JAI BATZORDEA

Festa giroak ez du etenik izango uztaillaren 24tik 31ra. “Eskertuko genuke atsedeen egun bat edukitzea, baina aurten horrela izan beharko du”

baina festetan laguntzeko jende gehiago egoten da prest.

Gainera, aurten herriko hainbat taldek beraien laguntza eskaini digute ekintza batzuk antolatzeko: herri afaria, sardin eta piper jana, herri olinpiadak, sagardo dastaketa eta bertso txapelketa, bertsolariak, soka dantza, umeen eguneko jolasak... eta hori eskertzekoa da. Horrez gain, festetan zehar egingo diren txosnako txandak Zubietan zabaldu nahi ditugu.

Ea denon artean moldatzen garen.

Nola doaz prestatuta lanak?

Orain arte bileretan bakarrik ibili gara. Hemendik aurrera gauzak prestatzen hastea tokatzen zaigu: eskaerak, erosketak, muntaketa lanak... Beraz, oraingoz ondo gabiltza, hemendik egun batzuetara ikusiko dugu.

“Zubietako jaietan beti dago parranda giroa”

NOAUA! Lehen Bertso Txapelketa proposatu duzue larunbat eguerdirako. Nondik sortu da ideia hori?

Zubietako Jai Batzordea. Egia esan ideia ez da gurea. Zortzitan Bertso Eskola urte batzuk

doa sagardo dastaketa antolatzen eta horrekin batera, puntu txapelketa proposatu ohi zuten. Aurten aldatzeko asmoz edo, bertso txapelketa antolatu dute eta guri behintzat oso ideia ona iruditu zaigu.

Aurreko urteetako arrakasta espero duzue?

Hori ezin da inoiz jakin. Beti espero duzu jendea etortzea, baina gutxiena espero duzunean jende pila etortzen da eta ezustean harrapatzen zai-

tu, edo alderantziz.

Zubietako jaietan beti dago parranda giroa eta beti goizeko ordu txikiak arte luzatzen da. Beraz, espero dugu aurten ere jendea animatuko dela.



ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!
Perfil bertikalik gabe!!
Zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
Aukera zabalak!



beirazko itxitura
seeglass one
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Astebetez luzatuko da jai giroa Zubietan

Uztailak 24, asteazkena

- 19:00 Jaien hasiera: txupinazoa eta buruhandiak.
- Jarraian, txosnen irekiera.
- 20:00 Txalagore taldearen emanaldia.
- 21:00 Herri Afaria.
- Ondoren, Laiotz taldearekin dantzaldia.

Uztailak 25, osteguna:

Santio Eguna

- 09:00 Esnadeia, Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.
- 10:30 Meza Nagusia.
- Ondoren, hamaiketako eta soka-dantza.
- 18:00 Herriko gaztetxoek Joko Garbi erakustaldia, Errebote Plazan.
- 19:00 Herri Kirolen erakustaldia: Aizkolariak: Ernesto Ezpeleta eta Hodei Ezpeleta. Harri-jasotzailea: Jokin Eizmendi.
- Segidan, buruhandiak.

Uztailak 26, ostirala:

Oilasko Biltzaileen Eguna

- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera, Ane eta Olatz trikitilariekin alaituta.
- 14:30 Oilasko biltzaileen iritsiera.

Uztailak 27, larunbata:

- 12:00 Sagardo dastaketa eta pintxoak, Errebote Plazan.
- Eguerdian I. Bertso Txapelketako sari-banaketa.
- 15:00 Bazkari herrikoia (Kuadrila bakoitza ardura dadila bere bazkariak).
- 18:00 Burrumba elektrotxaranga.
- 22:30 Larrian Gozo erromeria taldearekin dantzaldia.
- Ondoren, Zaparraren kontzertua eta Dj Seymar & X2R.

Uztailak 28, igandea:

Jubilatuen Eguna

- 09:00 Meza.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria, Barazar Jatetxean.



Soka-dantza Santio Egunean ospatzen da. Donostiako Txistulari Bandaren erritmora arituko dira dantzariak.

UZTAILAK 27 LARUNBATA

Eguerdian, sagardo dastaketa eta pintxoak Errebote plazan. Eta segidan, Lehen Bertso Txapelketako sari banaketa egingo da

- 17:30 Patxi ta Konpainia taldearekin dantzaldia.
- 19:00 Sardin eta piper jatea.
- Ondoren, buruhandiak.
- 22:00 Bertsolariak: Maialen Akizu, Unai Mendizabal, Agin Laburu, Iñigo Mantzisidor "Mantxi". Gai-jartzailea: Zortzitan Bertso Eskola.

Uztailak 29, astelehena:

Umeen Eguna

- 10:00 Jolasen hasiera.
- 13:30 Umeen bazkaria:

bakoitzak berea ekar dezala, eta gure kontu postrea eta sorpresa.

- 16:00 Puzgarriak.
- Ondoren, txokolatada eta buruhandiak.
- Amaitzeko apar festa.

Uztailak 30, asteartea:

Gaupasa Eguna

- 16:00 Mus Txapelketa (15:30ean izen-ematea).
- 16:30 Herri olinpiadak: herri kirolak, sukaldaritza, trebezia eta buru-jokoak.
- 00:00 Kontzertuak: Kilimak (euskal "runba"), Gozategi, DJ XD mixta-rekin goizaldera arte luzatuko da gaua.

Uztailak 31, asteazkena:

San Inazio Eguna

- 09:00 Zikiro prestaketaren

hasiera.

- 10:30 Meza.
- 11:30 Zubietarren arteko errebote partida.
- 14:00 Zikiro jatea.
- 18:30 Lopene ganadutegiko zezen txiki eta poniak. Ondoren, buruhandiak.
- 23:00 Herriko jaien amaiera, traka eta suziriekin.

Oharrak:

- Jaietan gerta litezkeen ezberharretan, Zubietako Jai Batzordeak ez du erantzukizunik.
- Musika egunero egongo da txosnetan gau eta egun.
- Jaietan ez da onartuko eraso sexista, homofobo edo arrazistarik.

Antolatzailea: Zubietako Jai Batzordea.

Urdaiagako jai egitaraua

Abuztuak 2, ostirala

- 17:00 Txupinazoa.
- Jarraian, helduen jolasak.
- 21:00 Musikarien afaria.
- Gauean: Zapparra, Rukula, Joxpa Erromeria.

Abuztuak 3, larunbata:

San Esteban Eguna

- 11:00 Meza nagusia.
- Ondoren, paxientxi eta ardo goxo banaketa.
- Jarraian, herriko dantzariak.
- 15:30-16:00 Muserako izen ematea.
- 16:00 Mus txapelketa.
- 17:00 Umeentzako eskulan tailerrak.
- 18:30 Buruhandiak.
- 21:00 Herri afaria.
- 23:00 Bertsolariak: Jon Maia, Eli Pagola eta Iker Zubeldia.
- Gai jartzailea: Amaia Agirre.
- Jarraian, Trikiak.



Abuztuaren 2an ostirala, Rukula eta Zapparra (argazkian) arituko dira zuzenean. Ondoren, Joxparekin erromeria.

Abuztuak 4, igandea:

Umeen Eguna

- 10:00 Umeen jolasak eta pintura lehiaketa.
- 13:00 Buruhandiak.

- 14:00 Haur bazkaria: norberak ekarri, bertan edaria eta postrea banatuko dira.

- 16:30 Umeentzako Dj Kakus, diskofesta.

- Ondoren, txokolate jana.
- Jarraian, buruhandiak.

Antolatzailea: San Estebango Jai Batzordea.

Barbakoak ikatza, eta tresneria!

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Pertsonak laguntzen ditugu

Mentalia Usurbil Zentroa

Mentalia Usurbilen ongizatea, autonomia pertsonala eta gizarteratzea dugu helburu pertsonen bizitza proiektua eraikitzen laguntzen dugularik. Tratamendu pertsonaliza tuak eta jakintza-alor anitzeko izatea duen arreta eskeintzen dugu. Zuen zoriontasuna gurea delako.

- Ongizatea
- Autonomia pertsonala
- Gizarteratzea

Helbidea
C/ Urdaiaga, 48
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

943 36 11 24
mentalisalud.es

Mentalia salud

Osasun mentaleko desoreken tratamenduan espezializatutako zentroak



Kentuene

JATETXEA

Sagaltxipi baserria, 23
20170 Usurbil · Gipuzkoa
Tlf: 943 361 127 · Fax: 943 373 317
www.kentuene.com

Ondo pasa Sanestebanak!

Atxegaldeko jai egitaraua

Abuztuak 23, ostirala

- 17:30 Kalejira poteo musika-tua herrian zehar Matraka Elektrotarangarekin.
- 20:00 Txupinazoa eta luntx mundiala.
- Ondoren, buruhandiak.
- 23:30 Kontzertu gaua: Mihi-se, Iñorkiñak, Larrian Gozo.

Abuztuak 24, larunbata

- 11:00 Umeen goiza: jolasak eta opari banaketa.
- 16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 muserako izen ematea).
- 18:00 Bubble Soccer, haur-errentzako jokoa.
- Segidan, txokolatada eta buruhandiak.
- 21:00 Herri afaria. Mikel Alkorta eta Ane Azkonobieta musikariek lagunduta (txartelak Artzabal, Bordatxo eta Txirristan salgai 15 eurotan).
- Gauean: Laket, DJ Nemux.



Alaia Martin, Oihana Iguaran eta Iñigo Mantzisidor "Mantxi" berriro arituko dira kantuan Atxegalden. Beñat Gaztelumendik osatuko du bertso saioko laukotea. Haritz Casabal "Kazz" arituko da gai jartzaile lanetan.

Abuztuak 25, igandea

- 11:30 Toka txapelketa.
- Jarraian, haragi, txorizo eta salda banaketa.
- 17:00 Mastertxeff txiki; sukaldari lehiaketa.
- 18:30 Bertso musika-tuak. Bertsolariak: Alaia Martin, Oihana Iguaran, Iñi-

go Mantzisidor "Mantxi" eta Beñat Gaztelumendi. Gai jartzailea: Haritz Casabal "Kazz". Musikariak: Gari Otamendi (bibolina) eta Ixak Arruti (gitarra).

■ 22:00 Azken traka.

Antolatzailea: Atxegaldeko Jai Batzordea.

Rukula Donostia Festibalean arituko da

Uda agurtzeko Donostia Festibala, garai batean Kutxa Kultur jaialdi gisa ezaguna, bueltan dator Zubietako hipodromora hirugarrenez irailaren 13an eta 14an. Musika talde mordo batekin; tartean, herriko talde bat. Rukulak ere emanaldia eskainiko du Donostia festibalean. Segidan duzue iraileko hirugarren asteburuko kontzertuen egitaraua. Sarrerak eta informazio gehiago: donos-



Rukula irailaren 13an arituko da. Argazkia: Josu Odriozola.

tiafestibala.com.

- Irailak 13, ostirala: Natos y Waor; La Pegatina; Mala Rodriguez; Carolina Durante; Carlos

Sadness; Ms Nina; Lágrimas de sangre; Tremenda Jauria; Ira; Joseba Irazoki eta lagunak; Kaskezur; Rukula; Budin DJ; Makala Dj Set; P3Z Dj Set.

- Irailak 14, larunbata: Beret; Ajax y Prok; Gatibu; Iseo & Dodosound with the Mousehunters; Maikel Delacalle; Bad Gyal; Tote King; Nerabe; El Negro; Melenas; La Plata; Antifan; Dabadaba Djs B2B Atraco Negrata; Brava; Atodamadre.



Euskaltegian matrikulatzeko ordua

Irailean sartzearrekin batera 2019-20 ikasturterako matrikulazio epea zabalduko du Etumeta AEK euskaltegiak: euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalagun, autoikaskuntza... Eskaintza zabala ohi bezala.

Informazio gehiago:

Nagusia, 43
607 609 379
usurbil@ae.eus
ae.eus
muntteri.blogspot.com.es

Sagarrondotik Sagardora, azken saioa

Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ikastaro praktikoko azken saioa irailaren 7an, 9:00etan hasita Po-txoenean; "sagarraren hel-dutasun analisiak. Etxean sagardoa egiteko hastape-nak", Aitor Etxeandiarren eta Egoitz Zapiainen esku-tik.

Izen ematea:

943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA • ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Lankidetzari segida emateko gogotsu

Maitasunetik maitasunaz hausnartu eta gugan, gizartearengan duen eraginaz gogoetatze-ko gonbitarekin abiatu zituzten Artzabalen, UEU-k, Jakinek eta Usurbilgo Udalak bi egunez antolatutako “Maitasuna politikoa da” jardunaldiak, aretoa goraino betea zela.

“Gozagarria da aretoa hala ikustea” esanez hasi zuen bere hitzaldia Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak, jardunaldion antolaketa bidelagun izan dituen UEU-ko zuzendari Kepa Sarasola eta Jakin Fundazio-ko lehendakari Lorea Agirre alboan zituela.

Hirurek, Udalak, UEU-k eta Jakinek Usurbilen jardunaldiak antolatzeko adostu zuten hiru urteko hitzarmena amaierara heldu da hirugarren edizio honekin. Usurbilgo alkateak ordea elkarlanari segida emateko keinu argia egin zien UEU-ri eta Jakin Fundazioari. Urteotako lankidetzarekiko es-



Jakin Jardunaldien kokaleku izan da Usurbil hirugarren urtez jarraian.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Ezagutzaren eta kulturaren topaleku honek bere lekua hartu du herrian”

ker ona adierazi eta oso aberasgarritzat jotzearekin batera zioenez, “hitzarmena berritzea espero dut eta hurrengo urtean ere bertan egoteko aukera izatea guztiok”.

Dagoeneko “ezagutzaren, jakinminaren eta kulturaren to-

paleku” honek herrian bere lekua hartu duela adierazi zuen.

“Elkarrekin, hori da helburua” Kepa Sarasolak jardunaldion hiru antolatzaileen arteko elkarlana goraiatu zuen, jardunaldion formatua arrakastatsutat jotzearekin batera. “Elkarrekin da UEUren ikastaroetako leloa, eta gaur ikusten duzue, egoera ezinhobean gaudela, norekin eta Usurbilgo Udalarekin eta Jakinekin”. Elkarrekin ez soilik antola-

tzaileak, bertaraturiko lagunak ere. “Elkarrekin arkitektuak, hezkuntza mundukoak eta filosofia. Elkarrekin, hori da gure helburua. Lortzen ari gara, eta hau da gure udako ikastaroen azken tontorra, 2019ko jardunaldietan”.

“Benetan interesgarria da udaletxe batek halako sentsibiltatea izatea”

“Pixkanaka oinarria jartzen eta indarra hartzen ari den plaza” gisa definitu zituen Usurbilgo jardunaldiok, Jakin Fundazio-ko lehendakari Lorea Agirrek. “Benetan interesgarria da, udaletxe batek halako sentsibiltatea izatea jakintzarekiko”. Usurbilgo Udala goraiatu zuen, tokiko erakunde hau izan zelako, Xabier Arregi alkate zela, jardunaldion sustatzaile nagusia. “Ez da oso ohiz ikusten den formula bat, baina benetan uste dut emaitza argi ikusten dela eta lankidetzari berri bat sortzen duela”.

Herri biziaren aldeko proiektuen aurkezpena

“Maitasuna politikoa da” jardunaldien baitan, hainbat herri esperientzia aurkeztu ziren; Usurbilgoa tartean, Udaleko arkitekto Jone Minerren eskutik. Azken urteotan bideratu eta espazio publiko, herri bizi baten aldeko apustua egiten duten egitasmoak aurkeztu zituen, baita proiektuok garatzeko irizpideak ere. Espazio publiko bizi, irisgarri, eroso eta seguruaren alde apustu egiten

duzenak.

Tartean, egun idazketa fasean den Herria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO), eta egitasmo honen testuinguruan, herriarekin parte hartze prozesu bidez landutako Mugikortasun Plana. 56 proposamen biltzen dituen; Askatasuna plazan bus geltoki nagusia kokatzea, udaletxea eta herri gunea oinezko pasabidearekin lotzea, Bordatxo ondoko errotondaren bueltan ibilgai-

luentzako azalera gutxitzea, Aginagako Kaxkoa oinezkoena bilakatzea guztiz, jada gauzatu den Kalezarrera igotzeko eskilarak berritu eta Anerreka ondoko parke berriaren proiektua eta Zumarte handitu zein birgaitzeko bideratzen ari diren lanak, giro itzali samarra duen Kale Nagusia biziberritze aldera.

Aurrera begirako hainbat erronka marraztu zituen Minerrek. Hilerrri zaharra batetik;

Kiroldegi eta ikastola ondoko lur eremua hustu du Udalak. “Herriaren bihotzean” den gunearrekin zer egin aztertu beharko da. Beste hainbeste baita, Udarregi atzealdeko zelai berdearekin. Eta jada bideratua dagoen beste egitasmo bat ere aurkeztu zuen; Ugartondoko urbanizazio berriaren kokatuko den belaunaldi arteko etxebizitza komunitario berria, Txirikorda proiektua.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Bazkideen arteko neguko txapelketetako sariak banatu ditu Gure Pakeak

Neguko Jubilatu Astearen bueltan ospatu ziren bazkideen arteko txapelketetako sariak banatu zituen Gure Pakea Elkarteak uztailaren 12an Artzabal atarian.

Saritu guztiek ezin izan zuten bertaratu, baina merezitako garaikurrik gabe ez dira geratuko. Ondoko irudi eta izenetan bildu dugu, otsailaren 12an eta 13an Gure Pakea Elkarteak antolatuta, Artzabalaren ospatu ziren mus, tute, punttu, toka eta igel jokoetako sarituen berri:

■ Mus txapelketa:

Antonio Lozano-Joxe Mari Ler-



Antonio Lozano eta Joxe Mari Lertxundi nagusitu ziren mus txapelketan.

txundi.

■ Tute txapelketa:

Isidoro Otero-Jose Manuel

Blanco.

■ Punttu txapelketa:

Jose Lizargarate-Maria Angeles

Lizargarate.

■ Toka txapelketa:

Maria Jesus Olano.

■ Igel jokoak:

Eliberto Carramiñana.

Oporretara

Dinamika ugariko ikasturtea amaituta, oporretara doa Gure Pakea Elkarteak. Merezitako atsedenaldia hartuko du jubilatutako elkarteak uda parte honetan, irailean indarberriturik itzultzeko. Uztailean eta abuztuan azken ostegunetan deitu ohi dituzten pentsio duinen aldeko elkarretaratzerik ez da izango, irailean itzuliko dira mobilizatzaera. Eta irailean itzuliko dira ekimen gehiagorekin ere.



Toka txapelketan Maria Jesus Olanorentzat izan zen sari nagusia.



Tutoko garaileak Jose Lizargarate eta Maria Angeles Lizargarate izan ziren.

UEU-ren oparia

Inoiz baino argiago islatu da egunotan, belaunaldi arteko topagunea dugula Artzabal. Gure Pakea jubilatutako elkartearen eguneroko martxara elkartu dira, UEU-k, Jakinek eta Usurbilgo Udalak antolatutako "Maitasuna politikoa da" jardunaldiak. Jubilatu elkartearen egoitza jardunaldioi lekua egiteko erakutsi-

tako eskuzabaltasunagatik esker ona adierazi nahi izan du UEU-k.

Ondoko irudiotako batean ikus dezakezuen moduan, Bai jauna, bai, fisika euskaraz! Joxe Ramon Etxebarria irakaslearen omeneko liburua oparitu zien UEU-ko kide Irati Iciarrek Gure Pakea Elkarteari.



Irati Iciarrek opari bat egin zion Gure Pakea Elkartearen ordezkariari.

Pelax eta MICE, Laboaren Uztaila borobiltzeko

Erdibidera heldu den Mikel Laboaren omeneko zikloak beste bi gonbidatu hartuko ditu, musikaz girotuko dizkiguten datozen bi ostegun gauetan; Unai Pelayo edo Pelax uztailearen 18an, Miren Narbaiza edo MICE hilaren 25ean. Bi emanaldiak 22:00etan Mikel Laboa plazan. Bi artistekin mintzatu da NOAUA!.

NOAUA! Laboaren Uztailean parte hartutakoa zara lehendik?

Unai Pelayo (Pelax): Duela pare bat urte egon nintzen nire lagun Beñat Antxustegirekin. Giro oso polita izan zen. Bertan arnasten da aura berezi bat. Oso toki polita da Mikel bera omentzeko eta euskal kantagintzari ere bere plaza emateko. Usurbilen lagun asko dut, bertan aritzen naizen bakoitzean oso ondo sentitzen naiz.

Bakarlari gisa zatoz, baina hainbat musikarirekin elkarlanean aritzen zara bakarrik baino sarriagotan?

Baditut kontzertuak bakarka izaten ditudan garaia. Orain



Pelax kantariak disko berriko kantuak eskainiko ditu uztailearen 18an Mikel Laboa plazan. Argazkiaren egilea: Nagore Legarreta.

PELAX

Ostegun honetan, hilak 18, Mikel Laboa plazan arituko da Pelax. "Eskertzen ditugu halako mimoz antolaturiko zikloak"

rock taldearekin asko entseatzten, sortzen eta emanaldi gehiago eskaintzen ari naiz. Beti gustuko izan dut beste formatuak probatzea, norberarentzat aberasgarria da tesitura ezberdin horietan aritzea.

Lan berria kaleratuta zatoz

Usurbila.

Azken hilabeteotako lana izan da. Kaleratu dugun azkeneko izenik gabeko eta rock progresibo estiloko diskoaren emaitzarekin nahiko pozik gara. Oso dibertigarriak egiten ari zaizkigu aurkezpen kontzertuak.

Aurkezpen emanaldietatik al denduko da Usurbilgoa?

Bakarka jotzeak badu abantaila handi bat; azken unera arte egon ahal zara zerekin topatuko zaren eta zer joko duzun jakin gabe. Askatasun hori oso gustuko dut. Ziur disko berri honetako kantuak ere anima-

tuko naizela jotzera, aurreko diskakoak, bertsio kuttunak, gustatzen zait ere inprobisatzea efektuekin, etxean aritzen naizen gauzatxoekin...

Bakarlariok Usurbilgo zikloa bezalako ekimenak, beharrezko dituzue halako plazak?

Bai direla beharrezkoak ze formatu txikiko kontzertuek behar dituzte baldintza zehatz batzuk. Giro lasaian isilik entzuteko eta muntaketarako errazak diren toki horiek maite ditut. Formatu txikiko kontzertuen eskaintza asko zabalduta, baina denak ez dira aproposak. Halako kontzertuek behar dute atentzio berezi bat antolaketa aldetik eta beti ez da bermatzen. Laboaren Uztaila asko zaintzen den agertoki bat da. Eskertzen ditugu halako mimoz antolaturiko zikloak.

Ostegunean zer aurkituko dugu zure emanaldian?

Musika zale batentzat esker oneko emankizuna izan daiteke. Filtro askorik gabeko bakarlaria topatuko du. Joko dena bene-benetakoa izango da, atrezzo askorik gabe.

Miren Narbaiza (MICE): "Usurbilen diskoa aurkezteko aprobetxatuko dut"

NOAUA! MICE izenarekin plazaratu zara, nolatan?

Miren Narbaiza (MICE): Izen hori jarri diot hitzak egiten duen soinua gustuko dudalako (maiz).

Nolakoa izan da kolektiboan aritzetik bakarlari izatera emandako jauzia?

Erronka potoloa izaten ari da, baina inoiz ez dut guztiz bakarka funtzionatzen. Inguruan musikari eta lagun onez inguratzen saiatzen naiz eta nahiz azken hitza nirea



Miren Narbaiza bakarka arituko da uztailearen 25ean.

izan, erabakiak taldean hartzen ditugu.

Bakarlari gisa jorratzen hasi ziren bidea, barne bidaia bat

ere bada?

Musikan barne bidaia beti dago, bakarlari ala taldean aritu. Bidaia gabe ez dago musikarik eta zentzu horretan lan egiteko modua berbera da lehen eta orain.

Zer entzungo dugu Usurbilgo zure kontzertuan?

Usurbilen oraindik ez dut nire proiektua aurkeztu eta beraz diskoa jotzeko aprobetxatuko dut, kasu honetan, bakarka arituko naiz berau defendatzen. Ia bertan elkartzen garen!

12. Baxurde Krossa, izen ematea zabalik

Uztailaren 6ko Uxue Trailen ostean, begi bistan dugu hurrengo lasterketa herrikoia. Usurbil-en sustrai sakonak izan eta hamabigarren ediziora heldu den Baxurde Krosserako eguna finkatua du jada Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak. Irailaren 15ean ospatuko da, igandearekin. Proba herrikoi-rako izen ematea zabaldu dute jada. Irailaren 14ra arteko tar-tea duzue inskripzioak bidera-tzeko. Bi bideotatik: kronoak.com atarian sartuta edo Oiardo Kiroldegian eskuragarri izango dituzuen inprimakiak beteta.

Iazko formula errepikatuko dute aurten; helduentzako ibilbide bakarra iragarri dute, frontoian hasi eta amaituko den 10,75 kilometrokoa. "Herriko kaxkoa eta baserri bi-deetatik igarotzen da frogia eta gehienez lau izango da, aldapa batzuk medio eta as-falto, hormigoi edo harri-txin-tzarreko bideen artean igaroko da", iragarri du Baxurde Txiki U.T.T.-k.

Haur eta gaztetxoentzako lasterketak ere iragarri dituzte. Helduena abiatu ostean, herrian barrena ospatuko dira, lehiakorrek izango ez diren kross gaztetxook. Segidan dituzue xehetasunak.



Irailaren 15ean ospatuko da Baxurde Krossa.

IZEN-EMATEA

kronoak.com atarian edo Oiardo kiroldegian diren inprimakiak betez osatu daiteke inskripzioa

12. Baxurde Krossa

Eguna: irailak 15, igandea.
Tokia: Usurbilgo frontoia, irteera eta helmuga.
Egitaraua:

■ 10:30 Helduen lasterketa frontoitik: 10,75 kilometroko ibilbidea.

■ 12:00 Haurren lasterketa ez lehiakorra: benjaminen (2010-11 urteetan jaiotako 8-9 urtekoen) eta alebinen (2008-09

urteetan jaiotako 10-11 urtekoen) 600 metroko ibilbidea.

■ 12:10 Haurren lasterketa ez lehiakorra: infantilen (2006-07 urte arteetan jaiotako 12-13 urtekoen) eta kadeteen (2004-05 urte arteetan jaiotako 14-15 urtekoen) 1.000 metroko ibilbidea.

Oharra: prebenjaminen 200 metroko lasterketa.

Izen ematea: irailaren 14ko 16:00ak arte kronoak.com atarian edo Oiardo Kiroldegian eskuragarri izango diren inprimakiak beteta.

Informazio gehiago: kronoak.com

Antolatzailea: Baxurde Txiki U.T.T.



Donostia Klasikoa Usurbildik igaroko da abuztuaren 3an

Nazioarteko txirrindulari probak udalerrri hau zeharkatuko du abuztuaren 3an. Emakumezkoen 127,1 kilometroko lasterketak 101. kilometroa Aginagan beteko du Oriotik Oliden aldetik heldu ostean, eta handik Usurbilera joko du, gero hiriburu alderako bidea hartzeko. Gizonezkoen 227 kilometroko lasterketak azken txanpa, Ibaeta aldetik Mendizorrotzera igota Usurbilgo lurak zeharkatzekoa da. Gero Murgil ton-torra igaro ostean, helmugarantz, Bulebarrera joko du. Klasikoa Donostiako Bulebarrean hasi eta amaituko da.

Informazio gehiago:
klasikoa.eus

Kiroldegia ordu gehiagoz zabalik

"Ordutegi aldaketa!" hala iragarri du Oiardo Kiroldegiak sare sozialen bidez. Aste hasieraz geroztik ordu gehiagoz zabalik dituzte igerilekua eta gaine-rako kirol instalakuntzak. Arratsaldeetan orain arte 17:00etan ireki izan dute Oiardo, baina astelehenaz geroztik 15:30era aurreratu dute irekiera ordua.



Astelehenaz geroztik 15:30era aurreratu dute irekiera ordua.

Mirandes zuzenduko du Andoni Iraolak

3⁷ urteko usurbildarra izango da Miranda Ebroko taldeko entrenatzailea 2019-20 denboraldian, Mirandes Bigarren Maila profesionalera itzuliko den unean hain zuzen. Taldeak beragan jarritako konfiantzagatik esker oneko eta erantzukizun berri honi aurre egiteko pozik agertu da. Bigarren Mailara heldu den azken taldea izanik, apaltasunez baina beldurrik gabe



Iaz entrenatzaile gisa jardun zuen Txipreko AEK Larnacan.

jokatu behar duela adierazi zuen Iraolak, bere aurkezpen

agerraldian.

Ibilbide luzea osatu du Iraolak futbolari gisa. 2003. urteaz geroztik elite mailan 12 urtez aritu zen Athleticean. Gero, AEB-tako New York City FC taldean aritu zen epe labur batean. Iaz entrenatzaile gisa jardun zuen Txipreko AEK Larnacan. Taldea Europa Leaguen sailkatzea eta urrian, Txipreko Superkopa irabaztea lortu zuen.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m².

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatze lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil

langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatzikalean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Adineko bikote bat zaintzeko emakume euskalduna behar dugu, arratsaldetan. 672427870

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera.

Usurbilgo neska baten bila gabiltza orduka lan egiteko, Usurbilen. Tel. 609 403 081

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrek emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko ta-

berna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakordeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrek emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrek emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegi. info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke.



Zorionak Noa!!

Uztailaren 15ean beteko dituzu 5 urte. Oso egun ederra pasako degu, ikusiko duzu!! Muxu handi bat!!



Zorionak Unax!!

Abuztuaren 1ean beteko ditugure txapeldunak. Muxu handi bat etxekoan partez!!!

Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko.

Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtariletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta espe-

rirentziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo

nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

BESTELAKOAK

DBH 3ko, 2. eskuko liburuak erosi-ko nituzke. Tel. 943 246 115

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Udan frantseseko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak pres-tatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesez arrazak txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdutugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 izaro

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 18	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 19	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 20	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 21	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 22	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 23	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 24	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Uztailak 18 - Uztailak 28

Osteguna 25	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Ostirala 26	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte
Larunbata 27	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 28	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda uztaila

18 osteguna

■ **Laboaren Uztaila: Pelax kontzertuan.** 22:00etan Mikel Laboa plazan.

19 ostirala

■ **Orain Presoak bizikleta martxa.** 17:00etan harrera Usurbilen. N-634 errepidean, Atxegalde parean.

20 larunbata

■ **Gipuzkoako Errebote Txapelketako finala.** 17:30ean Zubietako errebote plazan.

Presoen eskubideen aldeko udako mobilizazioak

Segidan duzue asteotarako mobilizazioon egutegia. Gogoan izan irailetik aurrera abiatuko direla, ekainean jendaurrean aurkezturiko "Xua Gurasoekin Etxera" herri ekimeneko deialdiak. Tartean, sinadura bilketa:

■ Uztaileak 19, ostirala: 17:00 Sarek antolatu eta Luhusotik Gernikara joango den "Orain presoak" bizikleta martxari harrera N-634 errepidean, Atxegalde parean.

■ Uztaileak 26, ostirala: 20:00 Euskal presoek eskubideen aldeko elkarretartzea Mikel Laboa plazan.

■ Abuztuak 4, igandea: 12:00 Euskal presoek eskubideen aldeko mobiliza-



Uztailaren 26an elkarretartzea egingo dute.

zioak hondartzetan. Orikoan, "Xua Gurasoekin Etxera" herri ekimenaren aldarria presente izango da.

■ Abuztuak 30, ostirala: 20:00 Euskal presoek eskubideen aldeko elkarretartzea Mikel Laboa plazan.

KzGunera datozen ikastaroak

Goizez, 9:00-13:00 artean izango da zabalik KzGunea hilabete honetan. Uztailearen 25ean, 26an, 31n eta abuztu osoan itxita egongo da. Irailaren 2an zabalduko dute berriz; hilabete osoan zehar 16:00-20:00 artean. Hurrengo ikastaroak:

■ Irailak 3-12, 16:00-18:00: "Kudeatu zaitez Google aplikazioekin".

■ Irailak 12-13, 18:00-20:00: "Online izapideak Osakidetzarekin".

■ Irailak 16-27, 16:00-18:00: "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

Informazio gehiago:

943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Datozenak

Donostiako 80. Musika Hamabostaldiko organo kontzertua

Hiriburuko musika hamabostaldia Usurbila itzuliko da azken urteotan bezala, abuztuaren 4an. Donostiako 80. Musika Hamabostaldiaren baitan, Organo Zikloaren testuinguruan, organo kontzertua antolatu da Udaren laguntzaz Usurbilgo Salvatore Parrokian. "Cristoph Kuhlmann alemaniarrek Wagner, Liszt, Schumann eta beste konpositore erromantiko batzuen obrekin gozatzeko aukera emango digu, Usurbilgo organoan. Hain zuzen, bereziki ongi ezagutzen du Usurbilgo instrumentu aparta, disko konpaktu bat grabatu baitzuen harekin". Kontzertua abuztuaren 4an arratsaldeko 20:00etan Salvatore Parrokian. Emanaldirako sarrera doan.

Informazio gehiago:

quincenamusal.es



Cristoph Kuhlmann Salbatore parrokiaren organoan jotzen.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



Zubiaurrenea 8
943 370 008

31 ETXEBIZITZA USURBILEN, UGARTONDO AUZOAN



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuk



Sukaldea



Pertsonalizazioa



Garajea

943 30 29 20

www.sukia.com



Zure etxean zaude

Finantziatuta



Arrazoi teknikoak, juridikoak edo komertzialak direla eta, informazio honek aldaketak izan ditzake.

